



Maitatu zure egunak. Pako Aristi.

ISBN: 978-84-9109-314-5

Orriak: 120

Saila: Poesia, 40

Salneurria: 14 €

MAITATU ZURE EGUNAK nire seigarren poesia liburua da. Kazetariatzat datu bat gehiago izan daitekeena, niretzat harrigarria da, berandu hasi bainintzen poesia idazten, eta lehen liburua argitaratu nuenean ez bainekien beste zenbat poesia liburu aterako nituen, ez nekien beste zenbat poesia zegoen nire baitan gordea. Poesia idaztea misterio handi bat da poeta batentzat ere: poesiak berak nahi duenean soilik agertzen da, ez zuk deitzen diozunean. Literatur genero guztietan bereziena dela esango nuke, eta berezienak, baita ere, poesia irakurleak.

Ni kazetaritzaren munduan aritu izan naiz urte askotan, prosa idazten, alegia; horren anaikidetzat izan ditut betidanik ipuingintza eta nobelagintza, gurutzatzen ziren ibaiak bailiren denak, bakoitza bere ezaugarri, bere erritmo eta bere tonuarekin, baina funtsean iturri beraren indarrak gidaturik: gauzak kontatu beharrak.

Eta hasieran, nire poesia ere nahiko narratiboa zen. Denborarekin zerbait ikasi dut, ordea. Poesia haratago doala, beste zerbait dela. Eta sei liburu hauek intuizio horren atzetik abiatutako eginahal baten ondorio izan dira. Zer da, baina, poesia? Hirugarren pauso bat, bizitzan daramagun bidaiari erantsi dezakegun beste koska bat.

Denoi gauzak gertatzen zaizkigu, eta gertakizun horien gainean kontakizun bat antolatzen dugu, gure interpretazioa ematen diegu. Eta, neurri handi batean, interpretazioak baldintzatzen du gertaerak izango duen garrantziaren neurria. Alegia: ez da hainbeste zer gertatu den, bazik eta zer kontaktzen dugun gertatu denaz. Hori da komunikazioaren eta kulturaren funts guztia. Gure baitan, oroimenean kontatu zena geratuko baita, ez hainbeste gertatu zena.

Horrek etengabeko gatazka sortu du gizateriaren historian, eta gatazka zabaldu da hezkuntzara, erlijioetara, filosofiara, eta gizarte guztietan egon da kontakizun hegemonikoa ezarri nahi zuen botere bat, eta kontakizun alternatiboak sortzen zituen erresistentzia.

Poesia hirugarren pauso bat da: gerla horretaz landa, hizkuntza berri bat dakar, arketipoak sortzen ditu, erreferente ezberdinak, paradigmak, gauzak esateko beste modu bat, deigarria dena, iradokitzailea, eta, batez ere, sintesia praktikatzeko duena. Nire kasuan, 145 poema neuzkan tokian 76 bota ditut zaborretara, eta beste poemak mozten eta mozten joan behar izan dut, muinaren bila. Soberan zeuden hitzak detektatzen eman ditut urte hauek, poemario hau bere horretan utzi arte. Narratzailearen aurka egin dut borroka, hirugarren esparru edo fase baten bila. Izan ere, poema bat idaztea oso erraza da, kantu bat egitea bezala, koadro bat margotzea edo aktore izatea.

Zailena, poesiara etorrita, da antzematea poema batek zenbat hitz behar zituen ongi geratzeko, soberakinik edo faltan liratekeen hitzik gabe. Poema bat egina dago lehen lerroa idazten duzun unean; ez dakizuna da ondoren gaineratuko dizkiozun lerroak bereak diren, ala zuk sortutako zaborra.

Gaien aldetik, bost berezituko nituzke liburu honetan; bost ataletan banatua dago liburua, gaiak zehatz-mehatz atal bakoitzari ez badagozkio ere: bat, harridura, egunero sortzen den argi berriak begietara ekartzen digun munduaren aurrean, edo Benito Lertxundik esaten zidan bezala, 'egunero hiltzen naiz, egunero jaiotzen naiz' esaldi misteriotsuaren ikerketa litzatekeena; bi, gizartearen eta norbanakoaren arteko tentsioa, gizateria bezain zaharra den gatazka, askotan ondorio larriak dauzkana ezarritako bizimoduari aurre egiten dionarentzat; hiru, zehardadea nola bizi, ulertzen eta enfokatzen dugun, eta nola bizitzaren une berezi horretan biltzen diren hipokresia eta kapitalismoaren ezaugarriak mingarrienak; lau, egia eta ipuinen arteko aldea, noiz iristen den pertsona bakoitzarentzat bere buruari egia esateko unea, ala beldurraren poderioz bizitza guztia ipuinak kontatzen pasa behar dugun; eta bost, 'egoak' azken urteetan izan duen inflazioa pertsona guztiengan, zeina selfien modan islatzen den, geure buruari edozein unetan argazkiak atera behar konpultsiboan.

Hala eta guztiz ere, ez dut poesia hermetikoa egin nahi izan, ez astuna, ez sinbolikoa, ez solipsista ere. Liburuaren formatua bera arina da, patrikan kabitzen dena, norberarekin eramateko liburu bat nahi nuen egin, bidean lagunduko dizulakoan, neuk ere inoiz ez dudalako ahaztu hamazazpi urte inguru haietan, bizitzaren arorik interesgarrienean abiatu nintzenean neukan ohitura, niri behintzat hain gozagarria zitzaidana, eta inoiz praktikatzeari utzi ez diodana: liburu bat hartzea patrikan, edozein lekuetara zoazela ere.

Kontsumismoaren gailurrean bizi garen honetan ere, poesia liburu bat eramatea soinean eraman daitekeen altxorrik ederrena iruditzen zaidalako.

Pako Aristi
2018-06-19